

## Konzertu sorpresa

Bazen behin mutiko bat Sergio deitzen zena eta bateria jotzen zuena. Baina arazo bat zuen: ez zuela bere kontzertuarentzat gitarristarik aurkitzen. Orduan bere aspaldiko laguna Samuel deitzea etorri zitzaion bururat.

-Samuel, nahiko zenuke gau huntan nirekin kontzertu bat egin?

-Barkatu, ezin dut, lana badut!

Beraz Sergiok Oier deitzea erabaki zuen.

-Oier, elgarrekin kontzertu batean joko dugu?

-Ze ordutan da?

-20:00-etan.

-Ados.

19:50-etan Oier oraindik ez zen kontzerturat iritsi. Beraz Sergio deitzea erabaki zuen.

-Barkatu Sergio, autoa panan daukat, ezingo naiz etorri!!!

-Zer!? Beno ados saiatuko naiz bakarrik jotzen.

Gau hartan, Sergiok kontzerturik bikainena egin zuen!

**Hawaien 64122**